

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko irailak 11 · 1154. zenbakia

## ERRONKA BERRIEN AURREAN AURPEGIA EMATEN

2020-2021 IKASTURTEA **MATRIKULA ZABALIK**



Zure bizitza

**EUSKARAZI!**

**Irailaren 25**era arte

- Ordutegi eta erritmo malguak
- Tarifa bereziak
- %20, %50 eta %75eko deskontua



Eibarko Udala  
Euskaltegia

PORTALEA - Bista Eder, 10 943 70 09 12 [euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)

# III. ARGAZKI LEHIAKETA

## GAIA: KONTSUMO ARDURATSUA PANDEMIA GARAIAN

**SARIAK**

1. Sosola baserrian gaua bi lagunentzat
2. Bidezko merkataritzako produktuen saskia
3. Ekologikoak eta bertakoak diren produktuen saskia.

Sari banaketa **URRIAREN 17an** Eibarren

Bidali argazkiak **urriaren 2a** baino lehen [egoaizia@egoaizia.org-ra](mailto:egoaizia@egoaizia.org-ra)

Lehiaketaren oinarriak

Antolatzailea: **20 EGOAIZIA** (2019-2020) | Finantzatzaileak: **EIBARKO UDALA**, **kutxa FUNDATZIOA**

# MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA

## "Isurketarik gabeko mugikortasunaren alde"

**Irailaren 16tik 22ra**

### EGITARAUA

**IRAILAK 15, ASTEARTEA**  
NORDIC WALKING BATAIOA (1. saioa)  
Izena eman daiteke hilaren 14ra arte: 943 70 84 08  
(Gubxienez 6 lagun eta gehienez 10)  
\* Bi ordutegi: 10:00-11:30 / 18:00-19:30  
\* Bataiorako tokia: Unbeko kiroldegia

**IRAILAK 17, OSTEGUNA**  
NORDIC WALKING BATAIOA (2. saioa)  
(Gubxienez 6 lagun eta gehienez 10)  
\* Bi ordutegi: 10:00-11:30 / 18:00-19:30  
\* Bataiorako tokia: Unbeko kiroldegia

**IRAILAK 19, LARUNBATA**  
BIGARRIN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA ETA KONPONKETA TAILERRA  
\* 10:30-14:00 Untzaga Plaza  
\* Azokan parte hartzeko: 943 67 02 49  
\* Informazio gehiago: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) ingurumen atalean

**IRAILAK 19, LARUNBATA**  
AUTORIK GABEKO EGUNA (Udalbusa doan)

**IRAILAK 19, LARUNBATA**  
NORDIC WALKING MARTXA  
Izena eman daiteke hilaren 18ra arte: 943 70 84 08  
(Gubxienez 6 lagun eta gehienez 10)  
\* Ibilbidea: Goizeko 10:00etan irtenda, Untzaga-Ipurua-Unbe-Txonta-Untzaga (8 kilometro)  
\* Makilak utziko dira. Horretarako, NANA aurkeztu behar da

**IRAILAK 25, OSTIRALA**  
NORDIC WALKING MARTXA  
Izena eman daiteke hilaren 24ra arte: 943 70 84 08  
(Gubxienez 6 lagun eta gehienez 10)  
\* Ibilbidea: Arratsaldeko 16:30ean irtenda, Untzaga-Amara-Xoxola-Arrajola-Jardiñeta-Untzaga (8 kilometro)  
\* Makilak utziko dira. Horretarako, NANA aurkeztu behar da

#mobilityweek | 

# Eskutitzak



## Oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: [erredakzioa@etakitto.com](mailto:erredakzioa@etakitto.com)

Erredakzioa

# Astean esanak



"Komilla latindarrak ingelesak baino askoz politagoak izanda ere, gaur egungo teklauean ez daudenez, desagertzen doaz gutxinaka, penagarria bada ere. Hizkuntza bakoitzak komillak modu desberdinean erabiltzen ditu. Anglosaxoiek, jakina, ingelesak erabiltzen dituzte. Frantsesean, bestalde, gaztelera erabiltzen diren komilla berberak erabiltzen dira (latindarrak), baina beste ezaugarri batekin: komilla eta letraren artean espazio bateko tartea lagatzen dute. Alemaneraz, latindarrak erabilia ere, alderantziz erabiltzen dira; kanporantz begira, hain zuzen. Aurrekoarekin lotuta doa orain dela egun batzuk kaleratutako berria. El Periódico egunkariak jakitera eman zuen CIAk 2017an jakinarazi zela Mossos d'Esquadra koei atentatua gertatu zitkeela Rambletan. Julian Assange WikiLeaks-eko sortzailea ez zettorren horrekin bat eta, Twitter-en zioenez, komunikatu horretan komilla latindarrak erabiltzea susmagarri jotzen zuen, jardun orokorrean ingelesak erabiltzen dituztelako"

FELIX ARES, zientzialaria

"Behin udako oporrak amaituta, inork ez dakigu zelan konportatu behar garen, zein den plana, noiz bidaliko dizkiguten umeak etxera. Metroa hartzen duzu beldurrez eta han ikusten dituzun epidemiaren inguruko kartelek argi lagatzen dizute guztia. Maskarilla erabiltzea da lehenengoko neurria. Bigarrena guztiz zen kalifikatu dezakegu: 'Puntako orduak ekidin'. Puntako orduetan hartu ezin den metroa hautsontziak bertan lagatzeko telebista bezalakoa da, edo bakarrik kafea hartzeko izan dezakezun mutil edo neskalaguna modukoa. Puntako orduak ekiditzaie mundu hobe eskaini diezagukeen utopiara eraman genitzake: lanera eguerdiko hamabietan sartu eta arratsaldeko bostetan irtetzera. Hori bai, batzuk normaltasun berri horrekin gozatzeko, betiko beste batzuk izango dira puntako orduetara kondentatuak. Jakina, koronabiruseko boletok erosten metroko ahoetan"

IÑIGO DOMINGUEZ, zutabegilea

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**NAGI.-** Alperra, ustela. "Ondo nagixa urten desku bekarixo barrixak".

**NAGIXAK BOTA.-** Nagiak atera. Lo asko egin ondoren, edo luzaroan jarrita geldi egon ondoren, guztiz esnatzeko gorputzari egiten zaizkion tirakadak besoak-eta luzatuz. Gaztelera 'estirarse'. "Danen aurrin nagixak botatzia ez ei da edukaziño onekua".



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkarte  
**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285  
**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
[erredakzioa@etakitto.eus](mailto:erredakzioa@etakitto.eus)  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus  
**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
[elkarte@etakitto.eus](mailto:elkarte@etakitto.eus)  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez  
**ADMINISTRATZIOA**  
Marisol Uriarte  
**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua  
**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez  
**DISEINUA**  
Maku Oruezabal  
**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta Malen Illarramendi  
**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri  
**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia  
**TELEFONOAK**  
943 20 67 76  
**AZALEKO ARGAZKIA**  
Malen Jainaga  
**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7-860 ale  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU Koop. (Oñati)  
**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



## Orain dela urtebe horrelakoak ginen

Arrateko jaien barruan, Kittonbolako produktu guztiak banatu ziren bertan parte hartu zuten guztien artean. Bertso-afarian, bestalde, ondo gordetzeko moduko saio bikaina eskaini zuten lau bertsolariek. Arrateetan tartea izan zen baita beste hainbat ospakizunetarako: horrela, Arrateko Amaren dantzak, prozesioa, dantza solte txapelketa, trikitilari eta bertsolarien saioa, herri-kirolak, kontzertuak, berbena... txosnetako jai-giroarekin nahastu ziren. Arragueta kaleko 11. eta 13. zenbakiak aurrigoeran deklaratzera erabaki zuten. 5.176 ikaslek hasi zuten ikasturtea Eibarko ikastetxeetan, Haur Hezkuntzan aurreko urtean baino 75 ume gutxiagorekin. Ezagutu Ekoizlea ekimena ipini zuten martxan bertoko produktuei laguntzeko.

- 1- Jendeak Arrateko Amari eskainitako dantzak jarraitu zituen.
- 2- Bezperako bertso-jaialdiak Kantabria jatetxea lepo bete zuen.
- 3- Ohiko prozesioak jarraitzaile asko bildu zituen.
- 4- Kittonbolak harrera bikaina izan zuen beste behin.
- 5- Geroago eroriko ziren etxeak aurrigoeran deklaratu zituzten.
- 6- Ezagutu Ekoizlea ekimena abiatu zuten.



## Nordic Walking bataioa egingo da Mugikortasun Astearen baitan

Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egingo du Udalak aurten ere eta, horren harira, irailaren 15etik 25era bitartean egingo diren hainbat jarduerara antolatu ditu. Nordic Walking Bataioa egin nahi dutenek horretarako aukera bikaina izango dute, irailaren 15ean (martitzena) eta 17an (eguna) Unbeko kirolgunean eskainiko dituzten saioetan. Bi talde osatuko dituzte, bata goizean (10:00-11:30) eta bestea arratsaldean (18:00-19:30). Izena emateko 943 70 84 08 telefono zenbakira deitu daiteke (irailaren 14ra arte). Irailaren 19an, berriz, ikasitakoa praktikan ipintzeko aukera egongo da, 8 kilometroko ibilbidea betetzeko martxa egingo da eta (izena emateko epea hilaren 18an amaituko da). Egun horretan ere, Untzagan, bigarren eskuko bizikleten azoka eta konponketa tailerra egingo dituzte goiz osoan eta parte hartzeko 943 67 02 49 telefono zenbakira deitu behar da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Eibarko Udalen web orriari (www.eibar.eus), Ingurumena atalean begiratu daiteke.

## %50 kontratatze konpromisoa duen TIG Soldadura ikastaroa

Irailaren 28an jarriko du martxan Armeria Eskolako titulatuaren %50 kontratatze konpromisoa duen TIG Soldadura ikastaroa (Lanbideren prestakuntza katalogoko MF0100\_2 arku-soldadura, gas babeslea eta elektrodo ez-konsumigarriak). Prestakuntza moduloa berez langabezia daudenentzat pentsatuta dago, baina lanean daudenek ere har dezakete parte. Prestakuntzak 370 orduko iraupena dauka eta, horrez gain, enpresetan egin beharreko 80 orduko praktikaldiarekin osatuko da formakuntza. Ikastaroaren ordutegia 08:00etatik 14:45era bitartekoa izango da eta, antolatzaileek azpimarratu dutenez, "Gipuzkoan kokatuta dauden hiru enpresa ikastaroa gainditzen duten ikasleen %50a kontratatzerara konprometitu egiten dira eta kontratuaren gutxieneko iraupena 6 hilabetekoa izango da, lanaldi osora". Izen-ematea zabalik dago (irailaren 18ra arte) eta eskaera internet bidez egin behar da, <http://ikaslaroak.armeriaeskola.com> helbidean. Izena ematen dutenei deitu egingo diete irailaren 22an egingo den sarrera froga egitera joateko.



●●● FUNEUSKADI  
Grupa Armeria

●●● FUNERARIA MUGICA  
Funeraria

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

AEKn, IRAKASLE BATEK  
BIK BESTE BALIO DU.

MATRIKULA ZABALIK  
IRAILAREN 30ERA ARTE

**Eibarko AEK euskaltegia**

2020/2021 EUSKARA IKASTAROAK

MAILA GUZTIAK A1,A2,B1,B2,C1,C2


Azterketa ofizialak prestatzeko aukera

Sostoa kalea 1, 1º solairua  
607 534 357 / 943 20 13 79 · [eibar@aek.eus](mailto:eibar@aek.eus)

DIRULAGUNTZAK/BEKAK

EBARKO UDALA      HABE

## TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

## Udalak herriko ikasleei ematen dizkien dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu dute

>>> Udalak jakinarazi duenez, 'Umeak Eskolara' eta 'Dirulaguntzak Ikasleei' programe-tako dirulaguntzak jasotzeko epea zabalik dago. Programa horien bitartez, Udalak 120,20 euroko dirulaguntza emango dio ikasle bakoitzari, Eibarko dendetan irailaren 1etik urriaren 30era bitartean egindako erosketengatik. 2 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen 'Umeak Eskolara' programako onuradun izan daitezkeen familiei gutuna bidali die Eibarko Udalak, bete beharreko eskaera-orriarekin eta jarraibideekin. 'Dirulaguntzak Ikasleei' programa, berriz, 1995eko urtarrilaren 1etik 2004ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako ikasleei zuzenduta dago, eta dirulaguntza jaso nahi dutenek Pegorara jo beharko dute, eskaera egiteko agiriak bertan hartzera (ez da ilaran zain egon behar, nahikoa da sarreran dauden gutun-azalak hartzea).

Bestalde, aurreko urteetan ez bezala, aurten Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bu-



legoan entregatu beharko dira laguntzak jaso ahal izateko eskaerak eta fakturak, Untzagako dorrean (sarbidea Txaltxa Zelaitik). Horretarako ordutegia, berriz, honako hau izango da: irailaren 14ra bitartean, asteleheneetik barixakura, 08:00etatik 14:00etara; eta irailaren 15etik urriaren 30era bitartean, asteleheneetik eguenera, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era eta barixakuetan, berriz, 08:00etatik 15:00etara.

## Pentsio publiko eta duinen aldeko manifestazioa deitu dute

>>> Abuztuko etenaldiaren ondoren, Eibarko Pentsiodun Plataformak deituta astelehen eguerdian kontzentrazioa egin zuten Untzagan, udaletxe parean. Beste ezer baino lehen, Zaldibarko zabortegean desagertuta jarraitzen duen Joaquin Beltran eta berarekin batera ezbeharren bizia galdu zuen Alberto Sololuze gogoratuz hasi zuten ekitaldia. Ondoren, orain dela bi urte eta erdi hasi zuten bideari jarraituz, herriko jubilatuek pentsio publiko eta duinak eskatu zituzten eta, horrekin batera, egoera zaurgarrian dauden zaintza egokia eta kalitatezko osasun publikoa ere



aldarrikatu zituzten. Aurrerantzean astelehenero elkarretaratzea egingo dute Untzagan, 12:00etan hasita, eta datorren astelehenean (hilak 14) manifestazioan abiatuko dira Untzagatik ordu horretan.

## Jabetze Eskolako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

>>> Udazkeneko Jabetze Eskolako ikastaroetan izena emateko epea irailaren 30era arte zabalik egongo da. Eskainiko dituzten ikastaroak hauek dira: Autodefentsa Feminista; Feldenkrais: Autokontzientzia mugimenduaren bitartez; Dantzen fusioa; Zure barruko botererako bidaia: Jabetzerako yoga (bi talde egongo dira, bata

goizez eta bestea arratsaldez); Afrikako dantzak; eta Nire zirrarak paperean eta oihalean marraztuz. Ikastaroei buruzko informazio guztia Udalaren web orrian, Berdintasuna - Andretxea atalean aurkituko duzue edo, bestela, 943 70 08 28 telefono zenbakira deitu edo andretxea@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.



## Bi egunetan bederatzita positibo atzeman dituzte Debabarrenean

>>> Azken datuen arabera, bost koronabirus kasu berri atzeman zituzten martitzenean Debabarrenean, horietako hiru Eibarren eta beste bi Deban. Horrela, bi egunetan bederatzita kasu berri atzeman dituzte Debabarrenean. Arrate eguneko datuen arabera, 9.906 PCR proba egin ziren eta, haieta-

tik, 661 izan ziren positiboak. Lurrealdeka, berriz, 97 positibo atzeman zituzten Araban, 312 Bizkaian, 240 Gipuzkoan eta beste 12 Euskaditik kanpo bizi diren artean. Ospitaleen egoera dela eta, COVIDaren ondorioz 53 pertsona ospitaleratu zituzten eta COVIDa duten 50 pertsona daude ZIUUn.



## Sara Bilbatua eibartarrak Zinemira Saria jasoko du

>>> Sara Bilbatua casting-zuzendari eibartarrak Zinemira Saria jasoko du Donostiako Zinemaldiaren 68. edizioan. Azken 25 urteotan, ikus-entzuzko 75 ekoizpenetan baino gehiagotan aritu da behar

eta euskal zinemaren alorrean nabarmena den pertsona ezagun gisa jasoko du Donostia Zinemaldiak eta Ibaia eta EPE/APV ekoizleen elkarrekin ematen duten garaikurra, irailaren 22ko galan.



## Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa egin zuten Arraten

>>> Urkizutik abiatuta, Arrateraino mendi martxa egin zuten martitzenean, Arrate egunean, Izan Bidea ekimenaren baitan Eibarko SAREK antolatuta. Parte hartzera animatu ziren behin Arraten elkartuta, euskal presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa eta argazkia egin zuten. Bes-

talde, martitzenean bete ziren 19 urte Asier Heriz eta Iñaki Saez auto istripuan hil zirela, Avilako kartzelan preso zegoen Lurdes Txurrukari bisita egiteko, elkarretaratzea egin zuten Soraluzen. Domekan, berriz, 12:00etan omenaldia egingo zaie Karakaten.

## Joaquin aurkitzea eskatu zuten, ezbeharra gertatu eta 7 hilabetera

>>> Domekan bete ziren zazpi hilabete Zaldibarren zabortegea amildu zenetik eta, hori gogoan, Joaquin Beltranen bila jarraitzeko eta gertatutakoa argitzeko eskatu zuten Zaldibarren, Elgetan, Ermuan, Markina-Xemeinen, Ermuan eta Eibarren, Zaldibar Argituk deituta egin ziren elkarretaratzeetan.



## Herriko tabernariak #Ostalaritza Bizirik kanpainarekin bat eginda

>>> Euskadiko ostalarien elkarrekin egindako deiarri erantzunez, herriko hainbat tabernari bat egin dute #Ostalaritza Bizirik kanpainarekin eta, besteak beste, ostalaritza eta gaueko aisialdiko lokalak salbatzeko eskaera plazaratu nahi dute.





## Bainua amaitu da

10.000 aldiz ireki ondoren, itxi dituzte kanpoko igerilekuetako atea. Aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili da, baina egoerak hala agintzen zuen. Igerileku sasoia ohi baino geroago hasi da, neurri bereziekin, baina uda lasaia izan da Ipuruan. Datorren urtean bainujantzia, toalla eta krema eramatea nahikoa izan dadila, maskara barik.

Hitzordua hartu beharra, gel-hidroalkoholikoa sarreran, margotutako partzelak zelaian... kanpoko igerilekuetara joatea esperientzia berria izan da aurten. Ateak zabaltu aurretik Eibarko Kirol Patronatuak hainbat neurri zehaztu zituen jende pilaketak ekiditeko asmoz eta, jendearen erantzuna eta agerraldirik egon ez dela ikusita, helburua bete egin dela esan daiteke.

Sasoian honetan 11.555 lagunek hartu dute txanda igerilekura joateko, 6.335 uztailean eta 5.020 abuztuan, baina 9.653 lagun joan dira azkenean, 5.499 uztailean eta 4.154 abuztuan. Aurreko urteekin alderatuz zifra baxuak dira, baina kontua izan behar da egunean lau txanda ezarri direla eta txanda bakoitzean 100 lagun inguru bakarrik sartu zitezkeela.

### Arauk errespetatuz

Kirol Patronatukoek Arantxa Marcos eta Hector Gisasola

sorosleek udan bizi izandakoa igorri digute. "Jendeak arauak errespetatu ditu orokorrean". Hasieran jendeari gehiago kostatu zaio, "ohitura hartu arte", baina gero ondo moldatu da, salbuespenak salbuespen.

Segurtasun distantziari eusteko asmoz, lurtean partzelak margotuta egon dira eta, sorosleek diotenez, batzuei kostatu egin zaie neurri hori errespetatzea. "Jende nagusiari kostatu zaio batez ere, umeak oso ondo moldatu dira egoera berrira. "Maskaren erabilerekin ere kontu handiz ibili behar izan dugu. Izan ere, maskara partzelan edo bainatzerakoan bakarrik kendu zitezkeen".

### Hitzordua: alde onak eta txarrak

Aro berri honetan herriko kiroldegietako instalazioak erabiltzeko egin behar den bezala, txanda hartu behar izan da igerilekura joateko eta, Kirol Pa-

**9.653 lagun joan dira aurten kanpoko igerilekuetara, 5.499 uztailean eta 4.154 abuztuan**



tronatukoek berbetan, "nahiko ondo joan da".

Herrian horrelako zerbait egiten den lehen aldia izanik eta, bat-batean gainera, alde horretatik fintzeko kontuak egon daitezke, baina alde onak eta txarrak ikusten dizkiote neurri honi. "Batetik, kexetako bat izan da jendeak ez duela txandak ezartzen duen denbora baino gehiago igerilekuan egoteko aukera izan. Baina bestalde, alde ona da hitzordua eginez gero igerilekuan lekua izango duzula ziur".

### Koronabirus arrastorik ez

Kanpoko igerilekuak koronabirus bariko lekuak izan dira, ez delako igerilekuekin zerikusia izan duen agerpenik izan. Beraz, neurriak ondo bete dira.

Kirol Patronatukoek diotenez, gainera, ikerketen arabera uretan kutsatzea baxua da. Hori dela eta, jendea estalitako igerilekua beldur barik erabiltzera animatu nahi dute. ■




## Pozik bueltatu dira eskolara herriko txikienak

Sei hilabete eta gero, pozik bueltatu dira haur eta gaztetxoek gure herriko ikastetxeetara. Irakasle eta zaintzaileek harrera beroa egin zieten astelehenean, COVID-19ak eragindako ezohiko itzulerari irrifar batekin aurre eginez.

Ikastetxe guztietan lan handia egin dute osasun- eta segurtasun-neurri zorrotzak martxan jartzeko, eta, azken egunetan, Jaurilaritzako Osasun Sailak abuztuaren amaieran zehaztutako neurri berrietara egokitu behar izan dira.

Maskarak eta eskuak garbitzeko gelak ez dira falta izan, baina, gainontzean, iazko baliabideekin hasi dute ikasturtea.





## Bidebarrieta-Urkizu kanala

Orain dela hiru urte, 2017ko irailean, aurkikuntza egin zuten Bidebarrieta kaleko Baratze tabernaren erreforma lanetan: kanal zahar bat. Aurkikuntzak atentzioa eman zion Javier Martin Lapeyra arkitektoari eta hipotesi bat planteatu zuen: Bidebarrietako eta Urkizuko kanalek unitate bat sortzen zutela eta, hori horrela izanik, Urkizun zegoen errota hidraulikoaren arrastoak aurkitzeko aukera egongo litzatekeela. Bere ikerketa javitxoo.blogspot.com blogean jasotzen dihardu.

**K**oldo Lizarralde 'Ingenios hidráulicos en Eibar' liburuan jasotzen duenez, XVI. mendean errota hidraulikoa zegoen Urkizun (20 errota inguru zeuden Eibarren). Errotak Ego errekatik Bidebarrieta-Urkizu kanalera zihoan urarekin funtzionatzen zuen eta, Martin Lapeyrak bere blogean dioenez, "kanal hau hondakin arkeologiko bezala esploratu eta dokumentatu beharko litzateke".

Martin Lapeyrak arreta handiz jarraitzen dihardu Urkizu 2-4 orubeko obrak eta inguruko bizilagunekin berba egin du.

Egindako ikerketak, orubeko obretan aurkitutakoak eta testigantzek berretsi egiten dute bere teoria: Bidebarrieta-Urkizu kanala existitu zen. "Hainbatek diote kanalaren jatorria Aurrera eraikinaren inguruan dagoela. Kanalak ura dario eta batzuetan usain txarra dago, baina gutxienez ez dago geratuta eta ibaira irteera du", idatzi zuen blogean 2019ko abenduaren 23an. Horregatik, Pegoran eskaera egin zuen aztarna hori garbitzeko, aztertzeko eta dokumentu-erregistroa egiteko, "bere egoera arriskutsua delako inguruko osasungarritasuna-

**Javier Martin Lapeyrak javitxoo.blogspot.com webgunean jaso du kanalari buruzko ikerketa**

rentzat eta eraikinen egonkortasunarentzat", Martin Lapeyrak dioenez.

### Kanala agerian

Eskakizunek erantzunik jasotzen ez zutela ikusita, ikerketarekin aurrera jarraitu zuen Martin Lapeyrak. Erregistroan arakatu ondoren eta kanalaren existentziaren teoria gero eta argiagoa zela ikusita, Urkizuko orubeko obrek bere usteak berretsi dituzte.

Orain dela hilabete, abuztuaren 11n, hondeatzaileak kanala agerian laga zuen. "Hemen nago, errealitate bat naiz, alferrekoa da ni alboratzea", idazten zuen arkitektoak blogean. Bertan jaso dituen argazkietan argi ikusten da nondik nora doan



Urkizu 2-4 orubeko obrek agerian laga dute Bidebarrieta-Urkizu kanala. JAVIER MARTIN LAPEYRA

ustezko kanala. Martin Lapeyraren ustez kanalak bi metroko sakonera izan dezake.

**Aldundiko arkitektoaren bisita** Urkizuko orubeko obrek aurrera jarraitzen zutela ikusita, Martin Lapeyra Mertxe Urteaga Gipuzkoako Foru Aldundiko arkeologoarekin kontaktuan

jarri zen abuztuaren 25ean. "Berak esan zuen harri-hormazko kanal bat ez zela garrantzizko elementu bat, baina errotaren makinariaren elementuak ba- zeuden, adibidez, beste kontu bat izango zela", dio blogean. Arkitektoak erantzun zion bere iritziz Eibarrentzat bai zela garrantzitsua eta, gainera, indus-

keta-lanak dokumentatu bariko kanala suntsitzen ari zirela ikusita, urgentziatzeko kontua zela.

Abuztuaren 26an Urteaga Eibarren izan zen obretan dagoen orubea ikusten eta Udaleko arkitektoekin bildu zen, "kontatu didatenez", Martin Lapeyraren berbetan. Horren ondoren, Txomin del Pozo Sainz arkeologo

eibartarra eta Martin Lapeyra Urteagarekin bildu ziren eta bere iritzia jaso zituzten.

Ikerketak aurrera jarraitzen du, eta arkitektoaren blogean gai honen gorabeheren inguruko azalpen zehatzak emateaz gain, jasotako datuetan oinarritutako marrazkiak egin ditu. ■

† JOSE SOLOLUZE OLASOLO

(1932-XI-10 / 2020-VIII-13)

Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.

Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun  
ilusioa eta bizipoza.



**USOBIAGA-OTERMIN ARKITEKTOAK**

Untzaga Plaza 11.Eibar  
tel: 943200318

info@uoarkitektoak.com  
www.uoarkitektoak.com

ezagutzen dituzu gure sare sozialak?

etakitto! etakitto.eus

f t YouTube

gaztekitto

**centro médico eibar**

URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreak / 1. solairua  
☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- Análisi Klinikoak
- Barne Medikuntza
- Dermatologia
- Dietetika / Nutrizioa
- Erizaintza
- Familia medikua
- Fisioterapia
- Foto-depilazio Unitatea
- Kardiologia
- Kirurgia
- Kirurgia (aurpegi-masaila)
- Kirurgia baskularra
- Koloproktologia
- Neurofisiologia
- Ortodontzia
- Otorrinolaringologia
- Psikologia
- Radiologia
- Traumatologia
- Urologia

&lt;&lt;&lt; AITZOL ASTIGARRAGA • UEUko Irakaskuntza Masterreko arduraduna &gt;&gt;&gt;

## “Irakaskuntza Masterra euskaraz eta *online* egiteko aukera egongo da UEUn”

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), UPV/EHUn zentro atxiki gisa, euskaraz eta *online* eskainiko du irakaskuntzako masterra 2020/21 ikasturtean lehenengoz. Masterraren helburu nagusia da DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle eta hizkuntzen irakasle izango direnak prestatzea irakasle bezala beharko dituzten ezagutza eta konpetentzietan, euren bizitza profesionalean izango dituzten funtzioak modu ahalik eta eraginkorrenean betetzeko. Egoitza Eibarren izango du masterrak, Markeskua jauregian. Aitzol Astigarraga masterraren zuzendariarekin egin dugu berba.

### Master berria sortu duzue UEUn baitan. Zein berritasun dakartza?

UEUk orain arte graduondo batzuketara, baina baina master ofiziala eskaintzen duen lehen aldian da. Zentzu horretan guretzat jauzi handia da. Irakasleak prestatzeko masterra egon badago EHU, baina aurrez aurrekoa. Hemendik aurrera, UEUn *online* egiteko aukera egongo da.

### Orain arte jende askok kanpoko unibertsitateetara jotzen irakaskuntza masterra *online* egin nahi bazuen...

Aspaldiko eskaera da. Batetik, urtero, aurrez aurreko masterraren plazarik bete egiten direlako, eta, bestetik, badagoelako jende asko (lanean dagoelako, familia-kontziliazioagatik edo mugikortasun-arazoa dutelako) aurrez aurrekoa ezin duena egin. Horientzako aukera bakarra Euskal Herritik kanpo-

ko *online* masterretara jotzea zen, Errioxara, Madrilera...

### Plaza guztiak, 120, ekaineko deialdian bete ziren. Zer dela-eta arrakasta hori?

Interes handia piztu du. 800 eskaeratik gora jaso ditugu. Argi ikusi da horrelako zer-baiten premia zegoela. Azken boladan, gainera, jende asko animatu da irakasle-ofizioa probatzera, beste lan batzuetan hainbat urtez egon ondoren.

### Zeinentzako da masterra?

Goi-mailako unibertsitateko titulua izan eta Bigarren Hezikuntzan edo Lanbide Heziketan irakasle jardun nahi dutenentzako da. Hobeto ulertzeko, lehen "CAP" deitzen zitzaiona. Euskarazko B2 titulua eta ingelesezko B1 behar dira.

### Zeintzuk dira masterrean eskaintzen dituzuen espezialitateak?



Aitzol Astigarraga, UEUko Irakaskuntza Masterreko zuzendaria.

Lehenengo zatia denontzako berdina da eta irakasle izateko ofizioaz eta pedagogiaz jarduten dugu. Bigarren zatian espezializazioak lantzen dira: ikasle bakoitzak bere arloari buruzko lanketa egiten du.

Hiru dira eskaintzen ditugun espezialitateak: Giza eta Gizarte Zientziak; Hizkuntza eta Literatura; eta Natur Zientziak eta Matematika. Praktikak ere berari dagokion arloan egingo ditu ikasle bakoitzak ikaste-

txeetan aurrez aurre, eta guk kudeatuko ditugu.

### Praktikak derrigorrezkoak izaten dira?

Bai, eta, amaitzerakoan, ikasleek gehien baloratzen dutena egindako praktikaldi hori izan ohi da.

### Berritasuna izanda, hasteko gogoz eta ilusioz egongo zarete, ezta?

Bai, gogotsu gaude. 120 ikasle izango ditugu eta 24 irakasle izango gara: unibertsitateko irakasleak, doktoreak, bigarren hezikuntzako irakasleak, hezikuntza ez formalean dihardutenak... Prest gaude, bertualki bada ere, ikasleak ezagutzeko, eta martxan jartzeko.

### Nolako abantailak eta desabantailak ditu *online* irakaskuntzak?

Etiket egitean distantziak gaintzen dira eta ordutegi aldetik ere malguagoa da, ez zaude ordutegi bati lotuta. Baina, gezurra ematen badu ere, disziplina handia eskatzen du. Goi-mailako ikasketak dira, egunero dedikatu behar zaio denbora eta askotan zaila egiten zaio jendeari. Hala ere, kontuan daukagu



Jendeari atek zabaldu nahi dizkio Markeskua Jauregiak. Bertan izango du egoitza ikasturte honetan UEUk estrenaitzen duen irakasleak prestatzeko masterrak.

## “Orain arte jende asko joaten zen kanpora Irakaskuntza Masterra *online* egitera”

jende asko lanean edo familia zaintzen dagoela, eta saiatzen gara ahalik eta malgutatsun handienarekin jokatzeko. Masterra urtebetean egiteko pentsatuta dago, baina batzuk nahiago izaten dute bi urte-tan egitea.

### Ikasketak *online* izan arren, egoitza Markeskua Jauregian daukazue, ezta?

Markeskuako beheko solairu osoa hartuko du Irakaskuntza

Zentroak. Bost laguneko lantaldia egongo da bertan eta gure nahia da herriari atek zabaltzea (herriko ikastetxeekin harremanak izatea, gure ikasleak herriko ikastetxeetan praktikak egitea edo bertan proiektuak burutzea...). Gure webgunean informazio guztia dago eskuragarri, baina askotan zalantzak edo beste edozein kontu sortzen dira, eta Markeskuan pozik azalduko diegu nahi duten guztia.



## MIREN ITZIAR GARITAONANDIA ALCIBAR

(2020ko irailaren 8an hil zen, 94 urterekin)

*“Eskerrik asko, Amama, guregaitik egin dozun guztiagaitik. Ez zaittugu iñoiz be ahaztuko”*

ZURE BILLOBAK

## zarelakogara

Helbidea \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_

Jaiotze data \_\_\_\_\_ K/K zenbakia \_\_\_\_\_

Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Urteak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

\* Urteko kopuruak dira

...eta kitto!

Euskara Elkartea

Urkizu 11  
943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus



Malen Illarramendi

## Asko dago jokoan!

Aurrekoan Olatz izeneko neska gazte baten kasu ezin latzagoaren berri izan nuen sare sozialen bitartez: koronabirusa dela-eta Osasun Sisteman dagoen protokoloari jarraituz, aurretik zuen dolentzia diagnostikatzeko probak atzeratu egin dizkiote hila-beteetan zehar. Orain, behingoz kasu egin diotenean, minbizia duela esan diote, eta, gainera, organo batean baino gehiagotan. Nola irentsi albistea? Nola barneratu aurretik kasu egin izan baliote, seguruen, kontua bestelakoa izan zitekeela? Nola egin aurre honi guzti honi hurbilekoen musurik eta besarkadarik jaso gabe? Badirudi esan eta esan zebilela ez zegoela ondo, baina entzun ere ez zioten egiten. Orain, aitzakia gisa, hain gaztea izanda, 26 urte baino ez ditu, ez zutela horrelakorik espero esan, eta kitto! Minbiziak adina kontuan izango balu bezala! Ez dakit zeinen erantzukizuna izango den gertatuakoa, baina Olatzen azalean jartzeak hotzikarak eragiten dizkit. Zoritxarrez, gertutik ezagutzen dut gaixotasuna. Gogorra da, berez. Are gog

## “Denok dakigu zein garrantzitsua den detekzio goiztiarra, batik bat minbiziaren kasuan. Zergatik ez zaio, orduan, Olatzi kasurik egin?”

orragoa izan behar da hilabeteetan zain eduki zaituztenean ezer ez daukazula esanez, kexati hutsa zarela sentiaraziz, COVIDa lehentasuna dela argi utziz. Denok dakigu zein garrantzitsua den detekzio goiztiarra, batik bat minbiziaren kasuan. Zergatik ez zaio, orduan, kasurik egin? Argi dago aurre egin behar zaiola mundua hankaz gora jarri digun izurriteari, baina pertsonak garela ahaztu gabe. Asko dago jokoan!



Mikel Arrillaga

## Baso biziak

COVID-19a beste gairik ez dago hedabideetan: Datuak bata bestearen atzetik: Ez dakit zenbateko gorakada EAE-n, bigarren olatua Bizkaian, agerraldi gehiago Katalunian, asintomatikoak, positiboak, PCR-ak... zoramena! Informazio plantako fardeletan sartutako beldur dosi txikiak.

Gordetzen ditugu distantziak, janzten dugu muturrekoa, arnasa hartzeko eskubideari ere uko eginez, garbitzen ditugu eskuak etengabe, gel zikin horrekin. Ados egon ala ez, betetzen ditugu neurriak, esanekoak gara. Orduan zertara dator hainbesteko bonbardaketa? Ez al dago beste gairik munduan?

Badaude bai. Eibar eta inguruetan, esaterako, sekulako eukalipto pila ari dira sartzen azken aldian. Jakinekoa da zein kaltegarria den Australiatik ekarritako zuhaitz hori: biodibertsitatea izugarri gutxitzen du, erreketako uren kalitatea eskastu, sute arriskua areagotu, paisaia zataratu, lurra lehortu..., basoa hil, hitz bitan. Inbasio horren aurrean ezin al da neurriarik hartu, ezin al da eztabaidatu sikiera? Baso osasuntsuak izateak dakar, besteak beste, COVID-19 bezalako birus eta txerrikeria gutxiago sortzea. Prebentzioan inbertitzea da kontua; baina, zoritxarrez, horri buruz ezer gutxi daki kapitalismo basati honek.

Eibarko Baso Biziak taldea sortu du oraindik esna dagoen hainbatek. Egunotan sinadurak biltzen ari dira basoen kudeaketa jasangarriagoaren alde. Sinatuko duzu?

**“Baso osasuntsuak izateak dakar, besteak beste, COVID-19 bezalako birus eta txerrikeria gutxiago sortzea”**



27.000 biztanle izanda, bederatzik kabina izatea dagokigu eibartarroi, 3.000 biztanleko bat indarrean dagoen lege-dekretua aldatu arte. Untzagan bikoitza dago, udaletxearen beste aldean zegoena kendu ondoren. TITO

## Beste sasoi bateko azken erlikiak gure kaleetan

Bederatzi ziren gure herriko kabinak opor aurretik udaletxearen aurreko bat kendu zutenean. Gaur egun zortzi geratzen dira bakarrik, sei eta udaletxearen beste aldean dagoen bikoitza kontuan izanda. Gutako askok halakorik inoiz ere ez zuen erabiliko, eta azken aldian zeinek erabili? Pandemiak ekarri digun egoera bereziarekin, edozein sartzen da gaur egun horrelako kabina batean! Sasoi batean hain beharrezkoak izan ziren kaleko elementu horiei ez zaie asko geratzen, euren azken hatsaren bezperak bizitzen dihardugu.

Askori kostatu ere kostatzen zaie ulertzen zergatik jarraitzen duten gure kaleetan. Ez dute zarata handirik egiten, kalterik ere gutxiri sortuko dizkiete, baina ikusita inolako funtziorik ez dutela betetzen, askori arraroa egiten zaie gure kaleetako panoramietan non edo non halakoak aurkitzea. Arrazoia erraza da: beharrezko zerbitzu unibertsal bezala dagoelako katalogatuta, 2021eko abenduaren 31ra arte behintzat. Badago beste aukera bat: data hori baino lehenago Espainiako parlamentua ados

jarri eta kabina horiek kentzea baimenduko duen legea onartzea.

Telefono kabinak 1928an hasi ziren ipintzen Espainiako kaleetan eta, urtez urte, BOEk (Espainiako Buletin Ofizialak) lehiaketa argitaratzen du zerbitzua eskaintzeko. Azken urteotan, baina, lehiaketa hori bete gabe geratu da. Ez dagoelako telefonia-operadorek elementu horien kargu egingo denik egunero batzbesteko 0'17 deiren erabilerrakoa. Gaur egun 15.346 kabina daude estatutuz guztian, 1990eko hamar-

kadaren amaieran kopuru hori 65.000 iristen zenean.

Zerbitzu horren arloko eskaera asko jaitsi da azken aldian, Telefonica-tik diotenez “telefonía mugikorrek ezagutu duen igoeraren eraginez”. Kabinen ardura duen enpresaren arabera, “gizartearen segmentu guztietan izandako aldaerak eskaera asko jaitea ekarri du eta, horren ondorioz, zerbitzuaren kostoa asko garestitu dira, inguruko herrialde askotan gertatu den bezala”. Une honetan kabina bakarra dago 1.000 biztanletik gora

dituzten herri guztietan eta, legez horrela jasota, operadoreak dioenez, kopuru horretatik gorako kasuetan kabina bat egon beharko da 3.000 biztanleko. “Hemendik kanpo ere”, Klara Gonzalez Telefonicako Ipar Zonaldeko arduradunaren esanetan, “kabinek zuten zerbitzu unibertsalaren ezaugarria ezabatzen joan dira; horren adibide da Frantzia, Belgika, Danimarka eta Estonian bizi duten egoera”. Hori adierazten dute Merkatu eta Kompetentzien Batzorde Nazionaletik.





Argazki hauetan Untzagan kokatutakotik aparte gaur egun herrian ditugun kabinak. Goian, Urkizuko beheko parkean (Txontako sarreran), eta Amañako plazan (T. Anitua eta Z. Agirre kaleen arteko loturan) daudenak. Behean, Urkiko 27. zenbakiaren ondoan eta Albert jatetxearen aurrean (Txaltxa Zelai eta Migel Aginaga kaleen arteko loturan) daudenak. Aldameneko orrialdean, bestalde, Ipurua foball-zelaiaren bidean (Sostoatarren kaletik I. Ojanguren kalera doan bidean) eta Markeskua jauregiaren aurrean (Moxo tabernaren azpian) daudenak. TITO

**la ez den erabiltzen zerbitzua** Mende erditik gora iraun duen zerbitzua indarrean jarraitzen badu ere, gutxinaka jaitzi egin da bere erabileran eta leku publikoetatik desagertzen joan da. Aurreko mende amaieran gutxi gorabehera 55.000 telefono publiko bazeuden estatuan, gaur da eguna 16.000ra iristen ez dela kopuru hori. Hala ere, nahiz eta ia ez erabili, prest daude funtzionatzeko. Aurrez esanda moduan, Telefonica arduratzen da euren funtzionamenduz, 2018ko amaieran -eta aurreikuspen guztien kontra- Espainiako gobernuak aipatutako operadorea behartu zuenetik zerbitzua eskaintzen jarraitzea. Kabina horietako koste garbia 4,52 milioi euro-ra heltzen da, nahikoa jakinda "gaur egun batazbeste bakoitzetik egunero dei bat ere ez dela egiten". Smartphone sasoi honetan, Merkatu eta Konpe-

tentzien Batzorde Nazionalak behin baino gehiagotan eskatu dio Espainiako gobernuari buelta bat ematea kabina eta telefono-gidekin jarraitzeari buruz, zerbitzu horiek ezabatzeke, baina gaur da eguna oraindik erabaki hori hartu ez dena. 2018ko abenduaren 28an gobernuak telefono-gidak eta abonatuaren kontsulta-zerbitzua kentzeko erabakia hartu bazuen

## Lege-dekretu berririk egin ez ezean, kabinak 2021eko abendura arte egongo dira kalean

ere, ez zuen gauza bera egin kabinekin. Zerbitzua betetzeko azken lehaketan inor ez zuenez bere burua eskaini, Telefonica jarraitu beharko du zerbitzua eskaintzen.

Gaur egun ia 16.000 kabina badaude estatuan, horietako erdiak ez dira inoiz erabiltzen eta 12.000 batek aspaldi laga zioten errentagarriak izateari, Telefonica Ipar Zonaldeetik dioskuenez. Kopuru horiekin, urteroko koste garbia 4,52 milioi eurokoa bada, hiru milioitik gora galtzen ditu enpresak tarte horretan. Zuetako bateren batek gogoratzen du noiz deitu zuen azken aldian kabina batetik?

**2007an, 26 kabinatik 19ra** Urte hartako amaieran, eta Telefonica aurretik egindako hainbat eskaerei kasu eginez, ordura arte gure kaleetan zeuden kabina batzuk kendu

ziren. Sasoi hartako legediari jarraituta, Eibarrek gutxienez 19 kabina izan behar zituen, eta Telefonica zazpi kentzea erabaki zuen. Udalak, baina, proposamena jaso eta eurretako bi kentzeari aurre egin zion, beste bostak eliminatzea onartzearekin batera. Horrela, orduan kendu ziren Otaola Etorbideko erdialdean, Urkiko Ceba tabernaren alboan, Barrena kalearen erdian, Ubitxako 16. zenbakiaren ondoan eta Urkizuko goi parkean zeudenak. Aurrekoekin batera, Errebalgo merkatuaren ondoan zegoena kendu zen, eraikina bota behar zela aprobetxatuz (merkatal eraikin berria egitekoan berriro kokatzeko asmoarekin, pentsa!); eta gauza bera egin zen Anbulatorio ondoan zegoenarekin, plazola berritzeko lanetan zebiltzala-eta.

Sasoi hartan hasia zen daogoneko komunikazio arloan geroago abiadura handiagoa hartuko zuten ohiturek, eta mugikorren agerpenak gero eta zentzu gutxiago izatea ezarri zioten kabinari. Etorrinak ziren ordurako kabinak gehien erabiltzen zituztenak, baina lokutorioen agerpenak bezeroak kentzen joan zitzaizkien kabinei. Corroesen bertan ere, bulego berria zabaldu behar zutela aprobetxatuz, lokutorio berriak egitea proposatu zuten.

### Ez da atzoko kontua

Aurretik esanda moduan, lehenengoko telefono kabina 1928an ezarri zen estatuan, Madrilgo Retiro parkean. Eta kabina gehien 1999an izan zen, 55.000tik gora, eta ospitaletan eta aireportuetan zeudenekin

batuta, 100.000 ingurura heldu zen kopuruarekin. Hona iritsi aurretik, Britainia Handia izan zen aurrena kabinekin hasten, "dendetan gortinez estalita kokatu ziren kasetekin". Emakumeak izan ziren kontsumitzaile sutsuenak hasieratik, baina sasoi hartako ohiturek "dendetan bakarrik sartzeak fama txarra" ekartzen zirenez, horrek bideratu zuen kabinak kalera ateratzera. Hasieran kabina horiek txanpon batekin zabalzen ziren eta erabiltzaileak telefonista batekin hasten zuten komunikazioa. Kabinak baino gehiago, telefono publikoak ziren orduko haiek, eta zirrikitu batetik sartzen zen fitxa batez baliatzen ziren kontaktua egiteko.

Behin 1967ra helduta, Telefonica telefonistarik gabeko zerbitzua ipini zuen martxan. Eta 1970. hamarkadan asko zabaldu zen, beharrezko zerbitzu publikotzat hartzeraino. Ez hori bakarrik, negozioa ere bihurtu baitzen. 1976an Antonio Merceroren "La Cabina" pelikulak, Jose Luis Lopez Vazquezek interpretatuta, beste jauzi bat eragin zuen kabinen munduan: horren ondoren, egon zen jendea ausartzen ez zena kabinako atea ixten. Clark Kent bera ere Superman bihurtzen zen kabina baten barruan... XXI. mendearan hasieran estatuan 108.000 kabina zeudela esaten da. Beste sasoi batzuk ziren orain dela bi hamarkadakoak!

Horregatik, Frantzia, Belgika eta Danimarkan kabinak desagertu diren moduan, Italian bide beretik jo dute azken aldian eta Alemanian ez da beharrezkoa zerbitzua eskai-



niko duen operadorea egotea. Estatu Batuetan edo Erresuma Batuan, esaterako, ohiko kabinak Internetekin lotzeko aukera eskaintzen duten wifi estazioengatik aldatu dituzte. Hemen ditugunek, bestalde, nahiz eta ez erabili apenas, ondo funtzionatzen dute. Horrez gain, kabina horiek mugikorraren prepago txartelen saldoa kargatzeko erabili daitezke. Uztailean, bestalde, Auzitegi Gorenak Telefonikaren alde egin

zuen azken horrek gobernuaren dekretuaren aurka jarritako helegitean eta konpainiak kalteordaina jasoko du. Euskobarometroak berak orain dela bost urte egindako inkesta batean azaltzen zenez, "kontsultatuen %88k inoiz ez zuen erabili telefono kabinarik". EAEn 733 kabina zeuden 2020. urtearen hasieran. Gehienok uste dugun baino askoz gehiago. Gure artean izango da erabiltzen jakingo ez lukeenik ere. ■

# ANTONIO LANDA MENDICUTE

EIBARKO ALKATE IZANDAKOA

(MADRILEN HIL ZEN 2020KO IRAILAREN 7AN, 91 URTEREKIN)

**"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN"**

— ETXEKOAK —



Beti da sasoi aproposa euskara ikasteko, baita pandemia baten erdian ere. Aukera behintzat, badago. Bestela, pentsa zenbat berba berri ikasi ditugun azken hilabeteotan: koronabirusa, berrogeialdia, etxeratze-agindua, konfinamendua... Beste edozein gauzatan ez, baina gaixotasun honek gure lexikoa aberastu du.

Euskara bizi-bizirik dagoen seinale da hori eta, urtero bezala, aurten asko izango dira euskara ikasteko hautua egingo dutenak. Horretarako, euskaltegiak martxan jarri dira, egoerara moldatzeko beharrezko neurriak hartuta, eta atekak zabaldu dizkie euskara ezagutu, ikasi edo hobetu nahi dutenei.

Udal Euskaltegiak ohiko eskaintzari eutsi dio eta euskara aurrez aurre erakustearen aldeko apostuari eutsi diote. "HABEren maila guztiak, autoikaskuntza, gurasoentzat bereziki prestatutako ikastaroak... egiteko aukera dago", diote. Hilabete amaieraraino dago matrikula egiteko aukera eta hori amaitzean jakingo dute zehazki nola antolatu beharko diren segurtasun-neurriak eta abarrak zorrotz betetzeko, baina arlo batzuk zehaztu dituzte dagoeneko. "Gela bakoitzeko ratioa bederatzita lagunekoa da, baina pentsatzen dugu zortzirekin nahikoa izango dela", esan digute. "Gela batzuk ezin izango ditugu erabili, oso txikiak direlako segurtasun distantziari eusteko, baina matrikulazio-kanpaina amaitzean jakingo dugu zehazki zenbat lagunek ematen duten izena eta gela gehiago beharko dugun ala ez".

## Aurrera egin eta euskara ikasi

Oztopo, muga eta zailtasunen gainera bizitzak aurrera dirau, euskarak bezala. Eta aurrera egiten dugun neurrian, zergatik ez dugu euskaraz egingo? Maskarek ere ez dute etengo gure hizkuntzaren jariora eta hitzun berriek euskarazko berba filtratuko dituzte babesten gaituzten musukoetatik. Horretarako, beharrezko neurriak hartuta, herriko euskaltegiek atekak zabaldu dituzte.



Oporretatik bueltan jendea hasi da ikasturte berrian zer egin pentsatzen eta aste honetan mugimendu gehiago igarri dute Udal Euskaltegian. "Informazioa telefonoz (943 70 09 12) edo e-mailaz (euskaltegia@eibar.eus) ematea izango litzateke egokiena eta, hona etortzea nahi izanez gero, hobe da aurretik hitzordua egitea", esan digute, segurtasun-neurriak ondo betetzeko asmoz. "Bestela, matrikulazioa ondo doa momentuz", euren berbetan, "baina guraso batzuk oraindik zer egin pentsatzen dihardute, umeen inguruan dagoen egoera ere nahiko zailantzekoa delako".

Berrietasun bezala eta segurtasuna bermatzeko aldera, sarrera Portaleko ate nagusitik egingo da eta irteera umeen liburutegiko atetik. "Jende pilaketak ekiditeko", Udal Euskaltegiaren berbetan. "Klaseetan maskarajantzita eraman beharko da denbora guztian eta, bestetik, orain ohikoak diren elementuak jarriko ditugu denen eskura: gelak, zapiak...", hartutako neurri batzuk aipatzearen. Ez da ikasturte arrunta izango, hasieran batez ere, baina Udal Euskaltegiak diote hasierak beti direla zoroak, ez bakarrik egoera berezi honengatik.

Udan, gutxienez, izan zuten egoera berri honetan klaseak ematea zer den jakiteko aukera eta esperientzia ona izan zela esan digute. Ondo moldatu ziren eta ez zuten gorabehera handirik izan. "Zerbait aipatzearen, Zarauzko agerraldia zela-eta, ikasle batzuk etxetik ibili behar izan ziren segurtasunez, Zarautzen izan zirelako,



AEK-ko irakasleak ikasturte berria hasteko prest daude.

baina ondoren negatibo eman zuten azterketetan", kontatu digute.

### Euskara irakasteko gogoz

AEKn ikasturte berrirako ikasgelak moldatzen ibili dira azken aldira, klaseekin segurtasun osoz hasteko. Sarreran gelahidroalkoholikoa egongo da, pilaketak saihesteko dituzte sarrera eta irteeretan eta, garrantzitsua dena, gogotsu daude ikasleekin egon eta euskara irakasteko.

Matrikula-kanpaina irailaren 30era arte egongo da zabalik, "baina aurrerago ere norbaitek izena eman nahi badu, egin dezake", esan digute AEK-koek. Klaseak talde txikietan antolatuko dituzte, 10 lagunekoa, eta aurreko urteetako jende kopuruak izena

ematen badu, oso ondo moldatuko dira. Momentuz matrikula-kanpainaren hasieran besterik ez gaude eta erritmoa nahiko lasaia da. "Normalean, Arrateko jaiak pasa arte horrela izaten da, lasaia, baina baliteke aurten izen-ematearen erritmoa pixka bat geldoagoa izatea", euskaltegiok diotenez. Dena dela, edozein zalantza argitu edo informazio gehiago behar izanez gero, 943 20 13 79 telefonoa eta eibar@eak.eus helbidea daude jendearen eskura edo, bestela, bertara joan daitezke, Sostoa kaleko 1. zenbakira.

AEKn aurrez aurre euskara ikasteaz gain, urrunetik ikastea eta autoikaskuntza ere posible da. Pandemia gertatu aurretik proposatutako aukerak dira, baina egoera honetan balite-

ke jende gehiago animatzea gauzak horrela egitera. Dena dela, AEK-koen ustez, aurrez aurrekoa da jende gehien gustatzen zaion ikasteko modua. "Jendeak euskara taldean ikasi nahi du batez ere. Besteei entzunez eta eurekin berba eginez ikastea gustatzen zaie", euren ustez. Hori bai, egoera txarrak irudikatzen jarrita eta berriaz konfinamendua ezarri gero, badute egoerari aurre egiteko esperientzia eta urrunetik jarraituko lukete klaseekin.

Konfinamendua ezarri zenean etxetik jarraitu zuten. Bada zerbait, baina ikasturte amaiera, euren zorionerako, AEKn bertan egin ahal izan zuten eta hura zoragarria izan zen. "Ikastaroa aurrez aurre amaitzea nahi izan genuen, segurtasun neurriak hartuta, amaiera

erreal emateko asmoz", euren berbetan. Udan autoikaskuntza egin dute hainbatek eta, bestela, terrazetan bildu dira batzuk mintzapraktika egiteko. Beraz, aspaldiko partez klasera itzuliko dira orain.

Irakasleak gogotsu daude ikasturte berriaren aurrean eta, egoera berriak betebeharrak eskatu arren, momentuan egokitzen dihardute, baita klaseak maskarekin ematera ere. "Hasieran oso arrotza egingo zaigu denoi, baina ohitu beharko gara", aitortzen dute. "Egoera berrira egokitze ahalegina egin beharko dugu denok, ikasleek zein irakasleek", AEK-koek diotenez. "Ez da lehengo bezalakoa izango, baina saiatuko gara ahalik eta berdinen izaten", diote itxaropentsu.



### BEGOÑA ARANGUREN ODRIOZOLA

"Gugan laga duzun arrastoak gidatuko gaitu bidean. Maite zaitugu" ZURE FAMILIA

Familiak bihotz bihotzez eskertu nahi dizue, senideongana gerturatu zareten guztiei, agertutako maitasun eta hurbiltasuna.



### ALBERTO SOLOLUZE TXURRUKA

"Milaka geunden hartzeko baina hartu duzu hoberena"

Nati, Nahia, Jon, Bittori, Agurtzane, Pedro, Paulo, Axi, Helene, Olaia eta Oier





## Txikitto! hilabetekariak gogotsu ekingo dio ikasturteari

Ez ohiko ikasturtea izan zen aurrekoa, zalantzarik gabe, nekez ahaztuko duguna. Ezohikoa ikasleentzat, irakasleentzat, gurasoentzat... Ikastetxeak bat-batean itxi behar izan zituzten, eta egoera berrira egokitu behar izan genuen guztiok. Pandemiak eragindako ondorioak ez dira gutxi izan; bizitzako arlo guztiak ikutu ditu eta, moduren batean edo bestean, ohitura, egoera eta zeregin asko goitik behera aldatu behar izan ditugu. ...eta kitto!-ren jarduna ere ez da egoera berri horretatik kanpo gelditu, eta horren adibideetako bat dugu Txikitto! hilabetekaria.

**T**xikitto!-ren zortzi ale banatzen ditu eskoletan ... eta kitto!-k, LH1etik LH-6ra arte, urria eta ekaina bitartean. Baina ia zoko ikasturtean, COVID-19aren ondorioz eskolak itxi eta hiru ale banatu gabe utzi behar izan zituen elkarteak, halaberrez. Martxoa, maiatza eta ekaineko aldizkariak jaso gabe gelditu ziren Eibarko LHko ikasleak. Aurtengo ikasturtean atzerapenarekin baina hiru ale horiek urtea amaitu baino lehen banatzea erabaki du ... eta kitto!-k: "Martxoko alerako ikasleen lanak jasota genituen eta maiatzeko Ipurterre ipuin-lehiaketako monografikoa zen; ipuinak jasota genituen eta epaimahaia emanda zuten ebazpena. Lan hori guztia ezin da alferrikakoa izan eta falta zaizkigun aleak irailan eta urrian banatuko dizkiegu. Abendura arte, beraz, sei aldizkari jasoko dituzte haurrek".

### 24 urteko ibilbidea

1996ko urrian ekin zion bere ibilbideari Txikitto! aldizkariak, eta orduz geroztik hilero jaso dute Eibarko Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak, 8 ale ikasturte bakoitzeko. Ibilbide luze horretan eraldatzen eta berritzen joan da, eta hainbat formatu eta itxura izan ditu: B5 formatua, A4, bi koloretan, koloretan, ale bana familiako, ale bana ikasleko... Edukia, aldiz, ez da horrenbeste aldatu, umeen gustoko eta intereseko atalak biltzen ditu 16 orrialdetan, hala nola, denborapasak, eskulanak, liburuak irakurtzeko gomendioak, errezetak...

### Ikastetxeekin elkarlan estua

Eduki horiek guztiak eskolek eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak adosten dituzte. Ikasturte hasieran egutegia zehazten dute; ataletako batzuk ...eta kitto!-ko kazetariak idazten dituzte, baina beste batzuk ikasleek eurek egiten dituzte; denborapasak, txisteak eta ipuinak. Horrez gain, ale bakoitzean ikastetxe bateko ikasle-talde bati inkesta egiten zaio eurek aukeratutako gai baten inguruan, eta beste ikastetxe batek jolastokian jolasteko moduko jolasa prestatzen du Txikitto!-n argitaratzeko.



1996ko urrian irten zen Txikitto!-ren lehen alea.



Eten luzearen ondoren prest eta indarberrituta iritsiko da herriko eskolara Txikitto!



## Berbetan programa martxa betean dator aurten ere

...eta kitto! Euskara Elkartearen jardunean COVID-19ak astindu duen beste alorretako bat mintzapraktikarena izan da. Martxoaren erdialdean bertan behera gelditu ziren euskara praktikatzeko ...eta kitto!-k martxan dituen aurrez aurreko taldeak. Egoeraz jabeturik, ...eta kitto!-k online elkartzeko aukera eskaini zien eta erantzuna bikaina izan zen. Irailetik aurrera aurrez aurreko itzuliko dira berbalagunak. Euskeraz primeran! kanpaina ere ekimen berriz beteta dator.

**H**ainbat hilabetez online elkartu eta gero, ekainean, egoerak utzi zuen neurrian, hasi ziren mintzapraktikako talde apur batzuk elkartzen; udako atsedenaldiaren ostean, berriz ere ekingo dio kanpainari ...eta kitto!-k, euskera maila hobetu nahi dutenei mintzapraktika egitera animatzeko. Dena dela, kanpainari itxaron gabe, eta segurtasun-neurri guztiak aintzat harturik, berbalagun goiztiarrenak hasi dira elkartzen. Datozen egunotan ekingo du Berbetan programaren aurkezpena ...eta kitto!-k; kronograma interesgarria antolatuko du aurtengo ikasturterako (txangoak, ikastaroak, dastaketa-saioak...), eta egoerak uzten badu behintzat, oso-osorik betetzea nahiko lukete.

### Gurasoentzat programa espezifiko

Aurten ere ahalegin berezia ekingo du ...eta kitto!-k gurasoak mintzapraktika egitera bultzatzeko. HH eta LH 1-2. mailako ikasleek eskolan bertan jasoko dute programaren berri, eta, horrez gain, eskola kanpoan sorpresatxoarekin izango da ... eta kitto! irailaren 21eko astean.



### Dendariak eta ostalariak Euskeraz Primeran!

Denda eta tabernetarako sortutako Euskeraz Primeran! kanpainak ere indartsu ekingo dio ikasturte berriari. Establezimenduetan edo sare sozialetan erabiltzeko testuak euskerara itzultzeko edota berriak sortzeko zerbitzua eskaintzen jarraituko du ...eta kitto!-k, doan (elkartea@etakitto.eus helbidean eska daiteke). Bestalde, datozen asteotan material berria banatuko da janari-denda eta tabernetan, horietan ere bezeroen eta saltzaileen artean euskeraren erabilera bultzatzeko.



## Euskaraldirako izen-ematea zabalik

Euskaraldiaren 2. edizioa ate joka daukagu. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da aurten Euskaraldia, eta oraingo honetan entitateak (enpresa, elkarte, erakunde, ikastetxe, denda, taberna...) izango dira protagonista. Izena emateko epea irailaren 27ra arte egongo da zabalik. Parte hartzera animatuz gero, Eibarren Akebai-n edo ...eta kitto! Euskara Elkartean lagunduko dizuete. Horretarako eibarrenakebai@gmail.com edo normalizazioa@etakitto.eus helbidera idatzi dezakezue edo, bestela, telefonoz deitu (943 70 84 44 luz. 4201 / 943 20 09 18).

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da aurten Euskaraldia, 15 eguneko ariketa soziala. Oraingoan, gainera, berrikuntzak dakartza. 2018an hizkuntza ohituren aldaketan pauso garrantzitsuak eman ziren Euskaraldian (11 egun euskaraz), ahobizi/belarriprest dinamikarekin. Aurten, 2. edizioan, entitateek (enpresa, elkarte, erakunde, ikastetxe, denda, taberna...) ere protagonismoa hartuko dute euren langile, bazkide eta kideen hizkuntza-ohituretan eragiteko. Eta asmo

horrekin Ariguneak antolatuko dira. Izan ere, 2. edizio honek dakarkigun berrikuntza nabarmena Ariguneena da, hau da, era guztietako erakunde, enpresa eta elkarteetan sortzen diren euskera erabiltzeko gune babestuek osatzen dituzten guneak. Bestela esanda, euskeraz lasai aritzeko guneak dira Ariguneak. Horrela, lehen edizioan hitzunen arteko harremanetan oinarritutako ariketa sozialari talde babestuetan egiten den ariketa gehituko zaio aurten. Ariguneak sortu eta entitateek (enpresa, talde, denda, ta-



berna, elkarte, erakunde, ikastetxe...) izena emateko epea irailaren 27ra arte egongo da zabalik. Eta irailean hasiko da ahobizi eta belarriprest modura herritarrek izena emateko garaia ere.

Aurreko edizioan bezala, Eibarren ere Euskaraldiari berriz heldu nahi diogu eta Akebaitik gonbidapena luzatu egin zaie gure herriko entitateei, egitasmoan parte hartzera animatuz Dagoeneko askok eman dute izena. Zuk ere parte hartu nahi baduzu, gogoratu hilaren 27ra arteko epea daukazula. ■

## “Osasun baldintza seguruak egon arte klase presentzialak gelditzea nahi dugu”

Kurtso berria hasi baino ez den honetan, datorren asterako, irailaren 15erako, greba iragarri dute hezkuntzako sindikatuek, eta Ikasle Abertzaleak ere grebara deitu ditu ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitatea osatzen duten gainerako langile guztiak. Mezua argia da: “Ondorioak ez ditzala langile klaseak ordaindu!”. Horrela azaldu dizkigute grebarako arrazoiak.

### Zer dela eta erabaki duzue grebarako deia egitea?

Kurtso berria hasi dugu, baina aurreko ikasturteko testuinguru ez da aldatu, berdin jarraitzen dugu: krisi kapitalista inoiz baino nabarmenagoa da eta burgesiaren ofentsibak ere bere horretan jarraitzen du. Horrekin batera, instituzio eta politikoen kudeaketa negargarria ari da izaten, uda osoa izan dute gauzak nola egin edo antolatu pentsatzeko, baina azkenean kurtso berria hasteko garaia ailegatu da eta, gauzak nola dauden ikusita, grebara joatea beste aukerarik ez digute laga, aipatu berri ditugun guzti horien ondorioak hezkuntza komunitatea osatzen duen langileriak jasan behar ez izateko.

### Ondorioak aipatuta, hezkuntza arloko langile zein ikasleentzako osasunak kezka berezia eragiten dizuela argi dago...

Hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiontzat osasun baldintza seguruak egon arte klase presentzialen gelditzea exijitzen dugu, hori funtsezkoa dela pentsatzen dugu.

### Hezkuntza komunitatearen osasuna bermatzeko, nolako neurriak ezarri dituzte kurtso hasi berri honetan?

Zalantza beteta ekin zaio ikasturteari, zalantza ugari izan arren inork ez duelako ezer argitzen. Pandemia gure ar-

tean agertu zenetik gaur arte, ziurgabetasuna konstantea izan da. Albiste eta beste gauza asko prentsaren bitartez jakin ditugu, bestela inork ez digulako azalpenik eman. Jangela batzuk itxi egin dituzte; orain eguraldi ona daukagu, baina hotz egiten hasten denerakobarruan egoteko tokirik ez dute aurreikusit... Gauzak horrela, noraez hasi dugu kurtsoa, eta horren ondorioak berehala hasi gara ikusiten: klaseak hasi direla bi egun baino ez dira eta gaur bertan jakin dugu ikastetxe oso bat itxi behar izan dutela Bizkaian, beste ikastetxe batzuetan ere klaseren bat itxi behar izan dute...

### Kutsatzeak eta horrelakoak saihesteko klase telematikoak proposatzen dituzte, batez ere adin batetik aurrera, baina zuek horrekin oso kritikoa azaldu zarete. Zergatik?

Gure ustez eztabaida ez da horrenbeste aurreko kurtsoa klase eta klase telematikoen artekoa. Berez, koronabirusa azaldu baino lehenagotik ere hezkuntzan arazo estrukturalak zeuden, pandemiak horiek ageriago laga ditu, baina ez dira orain sortutako arazoak, aurretik ere hor zeuden. Hori esanda, klaseak telematikoak izateak ondorio asko dituela uste dugu: ikasle asko atzean geratzen dira ezin diotelako erritmoari jarraitu, etxe askotan ordenagailu bakarrarekin anai-arrebak



### # ALAITZ GARATE Ikasle Abertzaleak #

ikasteko ez ezik gurasoak ere lanerako moldatu behar izaten dira...bakoitzak bere etxean eta inguruan izan dezakeen egoeraren pertsonalak ikasleari nola eragin dakioken ahaztu barik. Itxialdiak iraun zuen bitartean horrela aritu ginen klaseak hartzen, internet bidez, eta hainbat ekimen ipini genituen martxan, arazo batzuei erantzun nahian: Unibertsitateko Indar Batasunarekin batera apunte-bankua sortu genuen, ikasketa eta gai ezberdinei buruzko materiala ikasle guztien esku egoteko. Eta, horrekin batera, ikasle boluntarioak beste batzuei klaseekin laguntzen aritu ziren, adibidez.

### Errotik aldatu beharko litzatekeen gaur egungo ereduaren ordez, nolako hezkuntza eredu batzuk zenukete? Zein da zuen proposamena?

Horretan, gure mezua oso argia da: hezkuntzaren gaineko langile kontrola, hezkuntza doakoa, kalitatezkoa eta uniberts-

la izan dadila. Eta hori lortzeko bidean, hiru neurri berehala aplikatzea eskatzen dugu: ikasle langileok hezkuntzara sarbidea izan dezagun bermatzea; horrekin batera, ikasketa modalitate telematikoak sortutako zailtasun akademikoek ikasleon ikasketa prozesua ez oztopatzea, hau da, inor ez dela atzean geratuko bermatzea; eta lan politikoa eta militantea egiteko eskubidea, hau da, biltzeko eta manifestatzeko eskubidea bermatzea.

### Eta horretarako deitu duzue, hain zuzen, datorren martitzenerako greba...

Hori da. Datorren irailaren 15ean greba egingo dugu EAEn Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean. Horrekin batera, egunean bertan mobilizazioak egingo ditugu, hiriburuetan. Donostiako mobilizazioa 11:00etan abiatuko da Ibaetako campusetik eta eibartarrak bat egitera animatu nahi ditugu.

## Iratxe Sarasketa Cofreces

20. URTEURRENA: 2000-IX-9



“Hogel urte zu gabe,  
hainbeste gauza kontatu ezin...  
baina gure bihotzetan zure Irrifarrea  
entzungo dugu beti!”

ZURE KUADRILLA



>>> Mikel Zabala ezker hegalekoak lesioa gainditu eta denboraldi berria normaltasunez hasi du Irungo Bidasoarekin. Aurreko domekan jokaturako lehen partidu ofizialean, Europa Ligaren barruan Pauc Handball Frantziako taldearen aurka jokaturako norgehiagokan, 22 urteko eibartarrak hiru gol sartu zituen, Irungo taldeak 30-25 irabazteko. Hainbat hilabete-tan min hartuta egon eta gero, sasoi betean itzuli da eibartarra. Taldekide du baita JD Arratekin jokatu zuen Jon Azkue oriotarra ere.

Bestalde, Asobal Ligan jarraituko du jokatzeko denboraldi honetan ere Yeray Lamariano atezainak. 37 urteko atezain bereranoak aurreko denboraldian goi mailara igotako Segoviako Nava herriko taldean jokatu du, 2.800 biztanle dituen herriko talde horrekin igoera lortu ondoren. Taldeko atezain titularrak ibilbide luzea egin du au-

## Eibarrek baditu goi mailan jokatzeko diharduten eskubaloilariak



rretik: JD Arraten hasi eta gazte joan zen Leonera, han Ademarrekin jokatzeko sei urtetan; ondoren Bidasoan izan zen bi denboralditan, Octavion eta Antequeran denboraldi bana, Valladoliden hiru egin zituen eta, Nava, Ademar, Cangas eta Chartres taldeekin beste bana egin eta gero, 2017tik Segoviako taldean dago.

Maila bat beherago, Zilarrezko Ohorezkoan, jokatu du 26 urteko Ander Iriartek, Handbol Club Eivissan. JD Arrateko harrobian hasitako ezker albokoa aurretik Asobal ligako Bidasoan eta Zamoran jardundakoa dugu. Agustinosekin Zilarrezko Mailan eta Elgoibarrekin 1. Maila Nazionalean jokatu izandako eibartarrak Lanzaroteko San Jose Obreron jardun zuen azken denboraldian, 21 partidutan 130 gol egiteko Zilarrezko Maila horretan. Irla bat laga eta beste batera joango da, beraz, Iriarte.

## Patxi Usobiagak lehengo bidetik ekin dio eskalatzeari berriro

>>> Profesional izan zen sasoi itzuli barik ere, gozatzen ari da Eibarko eskalatazalea. Ez hori bakarrik, emaitzak ere lortu baititu; horren adibide, ekainaren 26an Lleidán dagoen Coll de Nargon "La fuga" bidetari jarritako puntu gorria. 9a zailtasuneko eskalatu eta gero ilusionatuta dago eibartarra, orain gainera denbora gehiago

duelako igo nahi dituen paretak patxadaz aztertzeke. Orain dela urtebete pasatxo lepoan egin dako ebakuntzaren arrastoak gainditu ondoren, 39 urteko eskalatazalea Alt Urgell-eko eskualdean bizi da, "kirol eskalada praktikateko paradisu ezin hobean", eta rokodromoa ere zabaldu du bertan, eskalatazaleak prestatzearekin batera.



## Eibartarrak nagusi Mendaroko padel txapelketaren lehenengo edizioko finalean

>>> Uztailaren amaieran jokatu ziren txapelketa horretako finalak, ekainean hasitako lehenengo fasearen ondoren partaideak aurrez bi ligatan banatutako sailkapenari jarraituta. Txapelkunen ligako finalean Eibarko bi bikote izan ziren, nor baino nor, eta hor Santiago eta

Gurrutxaga Egaña eta Quintas baino gehiago izan ziren. Kantsolazioko finalean, bestalde, Mendaroko bi bikote neurtu zituzten indarrak, Beitxi eta Manteka hirugarren setean Axular eta Macebori nagusitzeke. Datorren urtean beste edizio bat jokatzeko asmoa dute.



...eta kitto!  
1154. zerbakia

...eta kitto!  
1154. zerbakia



## Liga ate joka dute berriro Mendilibarren mutilek

>>> Liga irabazten hasteko asmoa du Mendilibarren taldeak, horretarako erdipurdiko aurre-denboraldia egin behar izan badu ere. Zaldibarko prestatzaileak sei-zazpi bat fitxaketa egiteko asmoa azaldu bazuen ere, oraingo pare bat jokalar berri besterik ez da etorri talde-ara: aurreko astean fitxatutako Kadzior poloniarri aste honetan Leganesetik lagata etorritako Recio erdilaria gehitu zaio. Bestalde, aurre-denboraldiko azken bi partiduetan ei-

bartarrek berdindu egin dute, bai Athletic-en aurka eta baita Osasunaren kontrako partiduan ere.

Bihar, zapatua, Eibarrek Celta hartuko du Ipuruan arratsaldeko 16:00etan hasiko den norgehiagokan. Hurrengo zapatuan, eta ordu berean, Castelloko Villarrealen zelaia bisitatuko dute Mendilibarren mutilek ordu berean. Partidu horien ondoren ligak geldialdia izango du tartean nazioarteko partidua jokatu direlako.



## Manixek Numantzia entrenatuko du

>>> Balear Uharteak alde batera laga eta orain dela gutxi amaitutako 2. A mailatik jaitziko Numantzia taldearen ardura hartuko du denboraldi berrian. Bere ibilbidean izandako emaitzek animatu dute Soriako zuzendaritza Javier Mandiola kontratatuzera, da-

torren denboraldian orain galdutako maila berreskuratzeko helburuarekin. Tudelanorekin lortutako marken ondoren, eibartarrak lan ona egin du Atletico Balearesekin; baina, bitan promozio igoera jokatu arren, ezin izan du uharteko taldea 2. A mailara igo.



## Egun hauetako Odei Jainagak ez du mugarik ezagutzen

>>> Komunikabideetan ohi-tuta gaude kaleratutako informazioa egun batetik bestera zaharkituta geratzera, baina Eibarko jaurtitzaileak horko marka guztiak ere apurtu zituen aurreko asteburuan. Azken aleko azala eman genionean, zelan jakingo genuen guk ba bertan agertzen zen markak bi egun ere ez zuela iraungo? Kluben arteko Espainiako txapelketan

marka berria ezarri zuen Odei Jainagak, bide batez Realari podiumera igotzea ahalbidetuz. Egun batzuk lehenago jabilinarekin lortutako marka bi metro eta 20 zentimetrotan hobetu zuen eibartarrak eta, 84,10 metroekin, Olinpiadarako gutxiengoarengatik 90 zentimetrorra geratu da eta hirugarren dago Europako aurtengo rankingean.



## Eibar Eskubaloia eta Eibar KE-ren arteko elkarlana aurkeztu dute

>>> Arrate bezpera eguna aprobetxatuta, gure herriko klub biek lore-eskaintza egin zioten Arrateko Amari eta, jarraian, denboraldi berriari begirako elkarlanerako proiektua aurkeztu zuten. Ekitaldian eskubaloi klubak Euskadiko Kopako neurketak jokatzeko lehenengo taldeak erabiliko dituen kamiseta berriak erakutsi zituen (JD Arrateren omenezko franja eramango dute) eta, horrekin batera, hurrengo denboraldian

talde guztiak jantziko dituzten kamiseta berriak ere ikusi ahal izan ziren, oraingo honetan Hierros Servando, Grupo Mecalbete eta Inmobiliaria Loiola (Altuna eta Uria) babesleen izenekin apainduta. Arrateko santutegiraino joan ziren Gaizka Bilbao eta Jon Mikel Lejardi Eibar Eskubaloia ordezkatzen, Jon Ander Ulazia eta Mikel Larrañaga Eibar KE-ren izenean eta enpresa babesleen beste hainbat ordezkarik.



Argazkian Patxi Lejardi Kultura zinegotzia eta Eva Alberdi Liburutegiko arduraduna.

<<< **EVA ALBERDI** • Eibarko Liburutegiko arduraduna >>>

## “Liburutegia leku segurua dela uste dugu, neurri guztiak ezarrita daude”

Eibarko Juan San Martin liburutegiak eten egin behar izan zuen martxoan aurrez aurreko zerbitzua, izurritea hasi zenean. Baina horrek ez du esan nahi bertako langileak geldirik egon direnik; beste gauza batzuk egiten eta lan egiteko modu berrietan buru-belarri murgilduta eman dituzte azken hilabeteak. Ekainean zabaldu zituzten berriro ateak, hori bai, COVID-19ari aurre egiteko ezarritako neurri zorrotzekin. Orain, irailean, normaltasunera heltzeko bidean daude.

### Zelan eragin dio pandemiak liburutegiari? Lan egiteko eta zerbitzua ulertzeko modu berriak ekarri ditu?

Konfinamenduak erabat aldatu zuen gure lana; aurrez aurreko zerbitzuak ezinezkoak izanda, Interneten bidez egin zitezkeen zerbitzuetan jarri genuen arreta. Horrela, sare sozialei buruzakada eman genien eta Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube izan ziren laneko tresna nagusienak. Denbora asko eman genuen Interneten zeuden aisialdirako eta irakurketa sustatzeko baliabideak hautatzen eta haien zabalkundea egiten. Bestalde, ume eta gazteei

zuzendutako bloga sortzeko aprobetxatu dugu, umeentzako eta gazteentzako interesgarria izan daitekeen informazio guztia biltzeko gune zehatza edukitzeko beharra ikusi baikenuen pandemia hasi zenean. Informazio larregi heltzen zen leku guztietatik, eta horrek kontrako efektua sortzen zuen. Beraz, informazio hori hautatu eta leku bakar batean eskaintzea interesgarri ikusi genuen, esate baterako, etxeko lanak egiteko loturak, Internet bidez eskaintzen diren doako baliabideak...

**Igarri duzue jende gutxiago doala liburutegira?**

Erabiltzaile kopuruak behera egin du, jakina. Egia da udan beti jaisten dela, baina aurten asko nabarmenagoa izan da. Kontuan izan behar da zabaldu genuenean ezin zirela zerbitzu guztiak eman (esate baterako, prentsa- eta ordenagailu-zerbitzuak; gainera, irakurketa ezin zen gure geletan egin, hau da, bakarrik mailegu-zerbitzua genuen martxan). Apurka-apurka zerbitzuak gehitzen joan gara, baina jende askok horiek erabiltzeko beldurra duela somatzen dugu.

**Alde onik atera diozue bizi dugun egoerari?**

Alde onei dagokionez, liburutegian xahuketa edo expurgoa egiteko aprobetxatu dugu eta baita liburutegia margotzeko eta txukuntzeko ere. Besterik, egia esan, ez asko. Lan egitea zailagoa da orain, COVID-19aren kontrako neurriak denbora guztian izan behar ditugulako buruan. Horrek asko zailtzen du lana: jardueretako aforoak, garbitasuna, kontrola...

**Pandemia hasi zenetik jendeak gehiago irakurtzen du? Ohitura berriak sortu dira?**  
eLiburutegiaren, hau da, mailegu digitalaren erabilera nabar-

men igo da garai honetan. Dei asko jaso ditugu konfinamenduan zerbitzu hau erabiltzeko behar zena eskatzen. Ekainaz geroztik, berriz zabaldu denetik, beste urteekin alderatuta jende gutxiago ibili da, baina espero dugu irailetik aurrera pixkanaka betiko martxa berreskuratzea. Jende asko irakurketa digitalera pasatu dela ikusten dugu.

### Berritasunik eskainiko duzue ikasturte honetan?

Irakurketa-klubak birtualki egiten ere saiatu ginen eta esperientzia horretatik asko ikasi dugu. Aurten irakurketa-klubak aurrez-aurre egitea da gure asmoa, baina modu birtualera pasatu behar badira, ziur aski aurrekoan baino hobeto irten-go dira. Adibidez, konfinamenduan sarean bi lehiaketa jarri genituen martxan, umeentzako eta helduentzako, eta oso pozik gaude izan zuten harrerarekin. Irakurketa sustatzeko beste modu bat izan daitekeela ikasi dugu.

### Zein da liburutegian jarraitu beharreko protokoloa?

Liburutegiko geletara sartzen direnek eskuak garbitu behar dituzte urarekin eta xaboiarekin edo gel hidroalkoholikoa-ekin, eta maskara jantzi behar dute. Bestalde, euren artean 1,5 metroko segurtasun-distantzia errespetatu beharko da, eta ez dira mugituko irakurketa- eta ikasketa-postuetako aukiak. Era horretan bermatuko da gainerako erabiltzaileekiko segurtasun-distantzia. Irakurketa-postu bakoitza erabiltzaileek eurek desinfektatu

## “Udan asko jaisten da erabiltzaileen kopurua, baina aurten askoz nabarmenagoa izan da”



## “Hurrengo ikasturtean gure jarduera guztiak aurrera eramaten saiatuko gara, gaur egun hartu behar diren neurriak kontutan izanda”

beharko dute erabili aurretik. Areto-okupazioak ez du gaindituko baimendutako edukiekin edo gel hidroalkoholikoa-ekin, eta maskara jantzi behar dute. Bestalde, euren artean 1,5 metroko segurtasun-distantzia errespetatu beharko da, eta ez dira mugituko irakurketa- eta ikasketa-postuetako aukiak. Era horretan bermatuko da gainerako erabiltzaileekiko segurtasun-distantzia. Irakurketa-postu bakoitza erabiltzaileek eurek desinfektatu

### Materialari dagokionez, nola-ko neurriak bete behar dira?

Erabiltzaileek itzulitako materialak gutxienez astebez erretiratu behar dira. Liburutegietan erabilera publikorako dauden baliabide teknologi-

koak erabili ahal izango dira, bai eta sarbide publikoko online katalogoak eta automailegua ere. Ekipoak erabiltzaileek eurek desinfektatu beharko dituzte erabili ondoren.

### Jendeak jarraitu dezake la-saitasun osoz joaten?

Gure ustetan jendeak bizitzen jarraitu behar du. Ezin dugu dena eten, dena gelditu, birus horrengatik. Hori bai, ezartzen diren segurtasun-neurri guztiak errespetatuz. Gure zerbi-

### IZEN-EMATEAK ZABALIK

#### Irailaren 16ra arte

- Idazlearekin Harixa Emoten Irakurketa kluba
- Helduentzako Irakurketa kluba, gaztelera
- Hizkuntzak praktikatzeko bilerak (gutxienezko elkarrizketa-maila B1)

#### Irailaren 25era arte

- Ume eta gazteentzako Irakurketa klubak
- Azalerako Ipuinak (1,2 eta 3 urte)
- Liburuen poltsa (4-7 urte)
- Paperezko Hegoak (8-12 urte)

#### Izen-ematea: Liburutegian.

Informazio gehiago:  
[www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura)

tzuaren kasuan, neurri guztiak ezarrita daude, beraz, leku segurua dela pentsatzen dugu.

### Irakurketa-taldeetako izen-emateak zabalik dituzue...

Bai, jakina. Irailean zabaltzen ditugu urtero. Eta aurten, zergatik ez? Oraindik denbora dago eskaintzen ditugun jardueretan izena emateko.

### Umeendako ipuin-kontaktak egongo dira aurten?

Ikasturte honetan gure jarduera guztiak aurrera eramaten saiatuko gara, gaur egun hartu behar diren neurriak kontutan hartuta: irakurketa-klubak, poesia-emanaldiak, umeentzako tailerrak (titere laborategia), zapatuko ipuina, erakusketak (bullyinga lantzeko adibidez), erabiltzaileen formakuntza...

## RAMON HERNALTES TREVIÑO

(3. urteurrena: 2017 / VIII / 5)

“Hiru urte pasatu badira ere,  
gure bihotzetan jarraitzen duzu”

ZURE FAMILIA



MAITE LORENZO • AKTOREA



## “Garrantzitsua da Eibarko sortzaileek elkarri laguntzea”

Maite Lorenzok zeresan handia emango duen HBOren ‘Patria’ telesailan hartu du parte. Esperientzia duen aktorea izanik, berarentzat lehen aldia izan da ikus-entzunezko batean eta esperientzia asko gustatu zaio. Leiho bat zabaldu zaio bere ibilbidean, baina ez ditu albo batera lagako hain maite dituen antzerkia eta poesia.

### Nola izan duzu ‘Patria’ telesailan parte hartzeko aukera?

Kasualitatez, Danel De Prado lagunari esker. ‘Patria’ telesailan figurante izateko bere burua aurkeztuko zuela esan zidan eta animatzeko, baina telesailen eta zinearen mundua ez zitzaidan batere interesatzen. Danel, ostera, tematu egin zen eta azkenean baietz esan nion, berari laguntzeko batez ere. Sorraluzen joan ginen castingera, argazkiak egin zizkiguten eta abar. Hilabete batzuk geroago deitu egin zidaten eta hasi eta berehala ordaindu egin ziguten. Orduan hasi zitzaidan gauza hura gustatzen (barreak).

**Zein da zure rola telesailan?** Hainbat eszenatan figurante izateko deitu zidaten, baina

ez nuen guztietan parte hartu. Adibidez, Elgoibarren grabatu zen azken eszenan bai. Gero, paper bat eman zidaten. Erretzen den autobusean doan emakumearen papera zen eta “ixo, ixo”, esan behar nion nire senarrari. Demaseko esperientzia izan zen. Donostiako Bulebarran egun bi egon ginen eszena bat grabatzen eta jendez inguratu zen.

### Nolakoa izan zen grabaketa?

Eguzkipean, euripean, gauez, ordu asko... Oso gogorra izan zen, baina asko gustatu zitzaidan. Ikusgarria da grabazioaren antolakuntza. Nik ez nuen horrelakorik espero, baina antolakuntza militarra da ia-ia. Hori bai, oso ondo zaindu gintuzten, errespetu handiarekin eta adeitasunez.

### Esperientzia honekin ikuspegi berria ireki da zure zurrumugan?

Bai, guztiz. Alde ekonomikotik, adibidez, oso ondo dago, lan egiten duzun egun bakoitzean kobratzen duzulako eta, ‘Patria’ egin ondoren, ‘Ilargi guztiak’ eta ‘Interrail’ pelikuletan parte hartu dut.

### Beraz, gustatzen zaizu bide berri hau?

Bai. Zure lana egiten duzu eta kitto, hor amaitzen da. Antzerkia, ordea, inoiz ez da amaitzen. Hala ere, ni antzerki aktorea naiz, horrek betetzen nau.

### Antzerkian zein proiektu duzu esku artean?

Batetik, urriaren 17an, ‘El día que me quieras’ poesia emanaldia eskainiko dut Portalean Al-

berto Egia pianistarekin, poesia gustatzen ez zaion jendea erakartzeko helburuarekin. Eta bestetik, abenduaren 20an, arratsaldeko lehen orduetan, ‘Los olivos palidos’ antzezlanaren aurkeztuko dugu Coliseoan. Mikel Areitioaurtenak zuzentzen du eta Juanma Cano, Nerea Ariznabarreta eta Enrique ‘El Vaka’ dira beste aktoreak. Apirilaren 2an zen aurkeztekoa, baina atzeratu behar izan genuen.

### Poesia, antzerkia, ikus-entzunezkoak... arlo ezberdinak lan-tzea gustatzen zaizu?

Bai, eta musikarekin, dantzarekin eta abarrekin uztartzea gustatzen zait. Eibarren garrantzitsua da arlo ezberdinetako sortzaileek elkarri laguntzea, horrela hazi egingo garelako.

## Saharar kanpalekuetako argazkiekin erakusketa zabaldu du Irigoienek Deporren

Jose Luis Irigoien Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideak “Saharai kanpalekuak” izenburuko argazki erakusketa zabaldu zuen atzo Deportibo tabernan. Vilassar de Dalt (Bartzelona) sorburu duen Revela T argazki analogiko garaikideari eskainitako nazioarteko jaialdiaren OFF atalaren baitan antolatutako erakusketa urriaren 5era arte egongo da ikusgai, taberna za-

baltzeko ordutegian. Irigoienek egindako argazkiek primeran islatzen dute basamortuaren erdian dauden kanpalekuetako 170.000 sahararren bizitza nolakoa den. Horrez gain, Bilboko Zuri Beltza Argazkilaritza Taldekoen lanak Ambigü eta Portalea tabernetan ikus daitezke, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik uztaiaz geroztik zabalik dauden erakusketetan.



## Erika Olaizolaren “Panpina” antzezlan eskainiko dute gaur iluntzean Coliseoan

Erika Olaizolak zuzentzen eta antzeztzen duen “Panpina” antzezlan taularatuko dute gaur Coliseoan, 20:00etan, UEUren eskutik eta Udalaren laguntzarekin. Kamikaz kolektiboaren eskutik ikusgai izango dugun lan honetan gai sakonak topatuko ditu ikusleak, umorea eta performance kutsuko aktore lan fisikoaz lagunduta. Erika

Olaizola aktorearen bulkadaz sorturiko antzezlan da “Panpina”. Oier Guillan idazlearen kanpo begirada eta Leire Arenas artistaren zentzu espaziala baliatuz, hirurak elkartu eta sortze prozesua abiatu zuten. Sarrera doan izango da, baina aurretik sarrera eskuratu beharko da Kutxabanken edo Coliseo antzokiko leihatilan.



## Asteburu honetan hasiko dira berriz ere pelikulak ematen Coliseo antzokian

Osasun larrialdia eraginez martxoan eten ziren zine proiektzioak asteburu honetan itzuliko dira Coliseo antzokian. Derrigortutako etenaldiaren aurreko martxari jarraituko diote eta, beraz, zapatutik astelehenera bitartean izango dira proiektzioak, eta sarreraren prezioan zein deskontuetan

ere ez dago aldaketarik (orain arte bezala, astelehena izango da ikusleen eguna). Asteburu honetarako filmak “La boda de Rosa” (Iciar Bollain), “Los nuevos mutantes” (Josh Bone), “Padre no hay más que uno 2. La llegada de la suegra” (Santiago Segura) eta “Tenet” (Christopher Nolan) dira.

## Bertso saio musikatua

Azken urteotan bezala, Hantxak bertso eskolakoei bertso saio musikatua antolatu dute. Beñat Gaztelumendi, Nerea Ibarzabal, Miren Arretxe eta Jokin Bergara bertsolariak musikarekin laguntzen Gari Otamendi eta Araitx Bizkai arituko dira eta gaitzartzailea Maialen Bergara izango da. Irailak 18an (barriak) izango da, 22:00etan Txaltxa Zelaian (eguraldi txarra egingo balu, saioa Portalean egingo litzateke). Antolatzaileek azaldu dutenez, “Udalarekin batera elkarlanean COVID-19tik babesteko neurri guztiak hartuko dira eta, edukiera mugatua dela eta, ezinbestekoa izango da sarrerak aurrez jasotzea”. Sarrerak doakoak izango dira eta Kutxabanken web orrian edo Coliseo leihatilan (astelehen eta barriak, 17:30etik 19:30era) eskuratu daitezke.



## Hizkuntza Eskolarako matrikula

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikula egiteko epea zabalik dago. Bertan eskaintzen dituzten



hizkuntzetako bat ikasi nahi dutenek irailaren 28ra arteko epea izango dute izena emateko. Kontuan izan behar da Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikula-eskaera aurkezteko ezinbestekoa dela Ikasgunea plataforman erregistroa egitea (erregistroa egiteko baliozko identifikatzaile bat, NAN, AIZ edo HNA, helbide elektronikoa eta pasahitza besterik ez dira behar). Argibide gehiago nahi izanez gero interneten begiratu daiteke, eskolaren web orrian (<https://>



## Zuzeneko hitzaldiak KZgunean

Oporretatik bueltan, KZgunean zuzeneko hitzaldiekin jarraitu nahi dute YouTube KZgunea TIC kanalaren bidez. Astero IKTei buruzko hitzaldi berriak emango dituzte, euskeraz eta gaztelaniaz, 30 minutukoak. Hitzaldi horiek jarraitu ahal izateko nahikoa da interneteko konexioa izatea, ez da besterik eskatzen.



"THE REVEREND SHAWN AMOS" taldeko abestaria, Portaleako Areto Nagusian 2019ko azaroaren 10ean. JOSEBA BARRUTIA "ARNO".

	7	1			5			
					1	7		6
6	8	5			7			1
4					1			8
8		2						5
1			3			6	8	2
2		6	8					
			1			3	9	

				8				1
7			6		3	2	9	
						4	8	7
	5				1	9		
	2			3			5	
		4	8					2
9	1	7						
	6	8	7		5			9
5				9				

soluzioa

F	A	S	E	R	R	E	P	E	
F	I	L	A	R	R	E	C	E	
S	R	E	B	N	S	C	R	I	O
L	E	T	A	R	I	E	L	E	
R	A	P	I	V	E	S	T		
R	I	L	E	Z	O	G	E	N	
L	I	O	L	E	S	S	E		
R	A	L	E	R	A	R	E		
R	A	L	E	R	A	R	E		
L	E	T	A	R	I	E	L	E	

**SUDOKUAK**

soluzioa

O	T	R	A	S	E	R	R	E	P	E
O	I	L	A	R	R	E	C	E		
S	R	E	B	N	S	C	R	I	O	
L	E	T	A	R	I	E	L	E		
R	A	P	I	V	E	S	T <td></td>			
R	I	L	E	Z	O	G	E	N		
L	I	O	L	E	S	S	E			
R	A	L	E	R	A	R	E			
L	E	T	A	R	I	E	L	E		

**LABIRINTOA**



**7 EZBERDINTASUNAK**





## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 11</b>
EGUNEZ   Lekunberri (Isasi, 31)
<b>ZAPATUA 12</b>
EGUNEZ   Lafuente (Sostoatarren, 10)
<b>DOMEKA 13</b>
EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)
<b>ASTELEHENA 14</b>
EGUNEZ   Iraundegi (Calbeton, 19)
<b>MARTITZENA 15</b>
EGUNEZ   Mendinueta (Urkizu, 6)
<b>EGUAZTENA 16</b>
EGUNEZ   Azkue (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 17</b>
EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)
<b>BARIXAKUA 18</b>
EGUNEZ   Morgado (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI, 2020an,  
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Celia Etxeberria Elizburu.** 94 urte. 2020-9-2.
- **Mª Josefa Arenas Molero.** 93 urte. 2020-9-4.
- **Mª Nacimiento La Cruz Sanchez.** 75 urte. 2020-9-5.
- **Jose Mª Lezama Llano.** 82 urte. 2020-9-5.
- **Domingo Valderrey Falagan.** 87 urte. 2020-9-7.
- **Jesus Mª Belastegi Basterrika.** 83 urte. 2020-9-8.
- **Miren Itziar Garitaonandia Alzibar.** 94 urte. 2020-9-8.

## Jaiotakoak

- **Danna Camila Minaya.** 2020-8-22.
- **Ametz Gonzales Victoriano.** 2020-9-4.
- **Laia Acha Gomez.** 2020-9-7.
- **Mateo Cabana Cid.** 2020-9-7.
- **Jon Ogiza Blanco.** 2020-9-8.



**ek!**

**ESKELAK,  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK...  
jartzeko:**

**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus

**ek!**

**ETXEKOEN  
ZORION-  
AGURRAK  
bidaltzeko:**

publizitatea@etakitto.eus

**688 62 76 89**

publizitatea@etakitto.eus



## Zorion-agurra ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bakideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguztana baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **URKO!!**  
Eguaztenian zure lehelengo urtetxua bete zenduan-eta, mutil haundi!! Gure famelixaren bizipoza zara! Patxo haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **LOREA!!!**  
Astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixaren partez!



Zorionak, **EKHI,**  
atzo 3 urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partetik. Asko maitte zaittugu!




Zorionak, **IKER,**  
bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Ondo-ondo ospatu. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Koldoren partez.



Zorionak, **TELMO!**  
Gaur 12 urte egitten dozuz-eta. Musu potolo bat etxekuen partez.



Ongi etorri, **MATEO!**  
Hillaren 7xan jaixo ziñan-eta famelixaren guztia alaitzeko eta zorionez betetzeko. Musu bana gurasuentzat etxekuen partez.



Zorionak, **NAIA** Iraola Ortiz, gaur 2 urte betetzen dozuz-eta. Espero dogu oso egun polita izatia eta primeran ospatzea! Patxo potolua, printzesa, famelixaren partez!



Zorionak, **JOKIN,**  
Arrate egunian 9 urte bete zenduaz-eta. Musu asko danon partez.



Ongi etorri, **AMETS!**  
Hillaren 4an jaixo ziñan-eta, famelixaren guztiaren zoriontasunerako! Pilla bat maite zaittugu!



Zorionak, **GERARDO** Arguinzoniz eta **MARCE** Martin, abuztuaren 29xan zuen urrezko ezteiak disfrutatu zenduz-eta!! Eider, Udane, seme-alabak eta famelixaren guztiaren partez. Musu haundi bat, maite zaittugu!

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

• **12an:** 17:00, 19:45, 22:30  
• **13an:** 17:00, 20:00  
• **14an:** 20:30  
"La boda de Rosa"  
Zuzendaria: Iciar Bollain



### 2 ARETOA

• **12an:** 19:45, 22:30  
• **13an:** 20:00  
• **14an:** 20:30  
"Los nuevos mutantes"  
Zuzendaria: Josh Bone



### ANTZOKIA

• **12an:** 16:00 (2 aretoa), 22:00  
• **13an:** 16:00 (2 aretoa), 19:00  
• **14an:** 20:30  
"Tenet"  
Zuzendaria: Christopher Nolan



### ANTZOKIA

• **12an:** 16:00, 19:00  
• **13an:** 16:00  
"Padre no hay más que uno 2"  
Zuzendaria: Santiago Segura



**LUIS JESUS RAMOS AIZPURUA**

3. URTEURRENA: 2017-IX-14

"Beti zurekin, beti gurekin.  
MAITE ZAITUGU"

ETXEKUAK



# Iragarki laburrak

Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.



**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garajea hartuko nuke Urki-Txaltzazelai inguruan. Tel. 645-007388. Jaseone.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-842219.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta beste edozein motako lanak egiteko. Tel. 602-626166.
- Eibarko neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 610-395225.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 657-155078.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-206409.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-292668.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Goizez, gauz eta asteburuetan. Tel. 633-556486. Victor.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. esperientzia. Tel. 632-415374.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 610-668183.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-014952.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (Jauraritzako titulua) eta etxeak eta bulegoak garbitzeko. 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Eri-zain-laguntzaile tituluekin. Goizez, eta arratsalde 16:00ak arte. Tel. 643-410742.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Egun osoko disponibilitatea. Tel. 650-257850.
- Neska eibartarra eskaintzen da umeak

zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-845081.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 660-542155.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 642-855788.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta mendian edo baserrian lan egiteko. Tel. 662-415709.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozein lanetarako. Tel. 722-531998. Jesus.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko: kalera atera, eskolako lanetan lagundu... Tel. 602-353585.
- Emakumea eskaintzen da ileapaindegilana egiteko etxetz-etxe. Tel. 660-378181.

### 4.2. Langile bila

- Eibarko emakume euskalduna behar da umeak eta etxeko-lanak egiteko eskolan dauden bitartean. Goizeko 7etatik 14:30 ra. 70 ordu inguruko kontratua. Hilean 10 egun. Tel. 636-379481.
- Langilea behar da Eibarko harategi batean. Bidali curriculum: eibarharategia@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Irakaslea behar da gaztelarazko klase trinkoak emateko. Tel. 661-874548.

### 5.2. Eskaintzak

- Klase partikularrak ematen dira: LH, DBH eta Batxilergoa. Edozein materia. Presentzialak eta on-line. Tel. 678-937827.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 lagunek taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Institutuko 4. DBHko liburuak salgai. 10 euro bakoitza. 15 euro bilduma direnak. Tel. 667-376212.



**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus

**Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR



Etxebizitza eksklusiboak  
**Eibarren bihotzean**

- Garajea eta trastelekua
- Balio anitzeko gela sukaldearekin
- Gimnasioa
- Errebal plazaren ondoan

**LEKU PAREGABEAN  
BIZI ZAITEZ**

**900 11 00 22 • neinorhomes.com**

Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar



bista eder

clinica dental - hortz klinika



Elkarrekin berreskuratuko  
dugu irribarrea.



bista eder

clinica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 20600 eibar

[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)



bistaeder\_clinicadental

